

URLO

# URLO

R. M. AZKUE apaizak

IRU ATALETAN EUSKERAZ EGINDAKO

OPERA

Bere adiskide Zubiriako Condeari

ZUZENDUA

*Bilbon 1911-1912*

---

Comedia lírica en tres actos

MUSICA Y LETRA CON TRADUCCION RITMICA

Del Presbítero Dr. AZKUE

DEDICADA

A su buen amigo el Excmo. Sr. Conde de Zubiria

*En Bilbao 1911-1912*



## AGERLAGUNAK.—Personajes de escena.

Luzi: *Untzagako emakume alargun bat*, una viuda de Untzaga.

TŠOMEKA: *Luziren alabâ*, hija de Luzi.

OKA: *eiztaría*, cazador.

URLO: *id.*      *id.*

ANTON: *baserritar bat, gaitzizenez Ašeri*, un aldeano, por apodo Ašeri.

ARIZTI: *eiztari ta bertsolaría*, cazador e improvisador de versos.

ERKIDI: *nekazari ta bertsolaría*, labrador e improvisador.

AZKAIN: *eiztaría*, cazador.

*Emakume-, eiztari-ta aurtaldeak.*

Coros de mujeres, de cazadores y de niños.

*Gipuzkoako Gaintzabal-ondoran, Untzaga deritzayon bailera batean. Orintsu.*

Junto a Gaintzabal (Gipuzkoa), en un barrio llamado Untzaga.  
Epoca actual.

## LENENGO ATALA

Agertoyala jasoeran Untzaga ageri da ikuslên eskerraldean, erdi ertzetara; bere atari edatsuan gurd bat eta zenbait saski, goldea, layak, eskuara ta aitzur batzuek. Etšearen gaildurrean burnizko oilarra. Etšaurreko zabalean (larrinean), intšaurrondo andi eder baten itzalpean, mai tšikitšo bat, bi alkiz inguratua. Atariaren eskubian sukaldea dago, larrinera leyo andi burdinagaduna duela; ezkerrean gela bat leyo berdinez ornitua. Udaberria da. Bailerako beste bi etšeren egatzak ozta ageri dira. Ikuslên aurrez aur Gainzabalerako bide zidorra. Sagasti bat ezkerretara, arresi luze bat bide zidorraren aldamenean duela. Eskubitara arto erne-berria.

---

Urlo agertu-orduko, bere burukoa (kapela) ta sutizkiloa orma-gainean, berak ezarrita, ikusi ditzaz ke; gero Urlo bera asnaska, sagastiko arresi-gaineratuko da, zakurra ugal batetik duela.

---

Urlo zutik arresi-gainean. Inkilan bera jetsi bite.

**URLO** (Zakurrari izketan.)

Tšoroška ori ¿noiz elduko akit, Turco, ire senera? ¿Zer esango ditek baserritarrak, goiarin baten tankeran akustenean? ¿Kattuzarrak epertzat arturik leyaz abilela, sagastietan, adar-arteko pisti otzanak izutzen? ¿zaunkaz eta ayumaka toio bat bezela? ¿Es alaiz lotsa? Ik ere atzaparrak nai itukeala, ayek bezelaše zugatzetan gora ta gora, orpotik besangetara ta besangetatik adaburura igotzeko. Ez izutu, ire onean dirauat.

Tšomekak, Untzagako Tšomeka ederrak ¿zer esango zian, i ta biok antšintšika nabaritu baginitu or: i neri parraz naski, ni katzain, nor naizen azturik? ¿Ez alaiz lotsa? Tšoroška ori ¿noiz elduko akit, Turco, ire senera? ¿Noiz izango aiz ire enda zentzudunaren duin? Adi, Turco. Aztu dezagun lena. Nere asmo gozatsu bat burutu badakigu, Untzagako etše jauregi-tuan ederki bizi ta eperkiz egunero elikaturik, jauregi-zakur izango aiz.



## ACTO PRIMERO

Al levantarse el telón se ve *Untzaga* a la izquierda del espectador, como de filo; en su amplio portal un carro y algunos cestos, arado, layas, rastrillo y unas azadas. En el caballete de la casa un gallo de hierro. En el patio o planicie frente a la casa, a la sombra de un corpulento nogal, una mesita baja con dos sillas en derredor. A la derecha del portal está la cocina, con una gran ventana de barrotes de hierro al patio; a la izquierda un aposento provisto de igual ventana. Es primavera. También se divisan los tejados de otras dos casas del barrio. Frente por frente de los espectadores se extiende el sendero que conduce á *Gainzabal*. Hay un manzanal a la izquierda, con un muro a lo largo del sendero. A la derecha, maizal que acaba de brotar.

---

Antes que aparezca *Urlo* se verán sobre el muro su sombrero y escopeta puestos por él; luego jadeante y a duras penas se endereza *Urlo* sobre el muro, teniendo a su perro de una trailla.

---

*Urlo* de pie sobre el muro. Baja por la escalera adosada a él.

**URLO** (Hablando con el perro.)

¿Cuándo has de entrar, loquillo mío, Turco, en juicio? ¿Qué no dirán de tí estos aldeanos, al verte, cual si fueras un alocado, a gatos, que imaginas tú perdices, desalado correr? ¿a manzanas alimañas, que en el ramaje se refugian tímidas, ladrando cual faldero y ahullando amedrentar? ¿No sientes rubor? Dirán que quisieras tener, cruel, aceradas garras por poder trepar los manzanos del contorno, del tronco a los brazos, ramaje arriba, la copa por alcanzar. No te espantes, sólo tu bien me mueve a hablar.

*Tsomeka*, la gentil *Tsomeka* de *Untzaga* ¿qué no hubiera dicho de habernos visto en el manzanal, perro y amo a todo correr, riendo tu tal vez de mí, yo defensor de gatos, sin decoro? ¿Sientes ya el rubor? ¿Cuándo has de entrar, loquillo mío, Turco, en tu juicio? Di ¿cuándo has de ser tú digno de tu juiciosa raza? Mira, Turco. Vaya al olvido lo pasado. Como yo llegue a alcanzar lo que ansío con afán, he de hacer de *Untzaga* un gran palacio, tú vivirás de perdices dulcemente alimentado, cual cumple a un palaciego can.

URLO, TŠOMEKA TA LUZI

- URL. (Untzagako larrinera, intšaurpera, eldueran, sapailora begira ots egin beza) ¡Aup!  
¡Aup! Untzagatarrak: eiztari bat dator zuengana.
- TS. (Sorailu-barnetik larrinera begiratzuz.) Ama: betiko agure potzoloa or da gaur ere.
- URL. Tšomekaren itza da. ¿Zer dion, Tšomeka, eder orrek? Ire itz gozo bakar batek basoilarraren kurruka...
- LUZ. (Larrinean.) ¿Zer darabil, Jauna, beti Aup eta Aup? Ezkaude gorrik.
- URL. ¿Zu alziñan, Luzi? ¿Tšomeka goyan alda?
- LUZ. Or da nunbait.
- URL. Zorionekoa da alaba orren galant malota duen ama.
- LUZ. Zer bait, jauna, esan nai nioke berorri. Maiztšoege dator onera, Urlo jauna. ¿Ezaldu Gainzabal guztian betarik nun eman?
- URL. ¡Au neri! ¡Au! Begira: il nazazu, Luzi; bainan ez neri onera bidea eragotzi.
- LUZ. Alabatšo aingeruki bat det, lurreko ondasunak baino maiteagorik. Aizkorriko elur tšuria ezta Tšomeka bezin garbia ¿ta nai du nik malazkatzen uztea?
- URL. ¿Nor naizela uste dezu, Luzi?
- LUZ. Uri ortako jaun bat, ezkontzeko asmorik badu, uriko anderea baserritar neskatša lotsati bakun bat baino obeki letorkiona.
- URL. ¿Ezaldute Untzagan dirurik nai?
- LUZ. (Gogorki) ¡Urlo, ken emendik, utikan! Ezkaude salgai.
- URL. Oker zaude. Ezkontzeko asmoa det. Ona argibidea. Bi kutsatiltan erratzuna ta sakeloren bat eman bezaizkio Urlok Luziri. Erraztun au Tšomeka-arentzat da ta sakelorentšo au zerorrentzat.
- LUZ. (Poz pozik arturik.) ¡Au det zoriona! ¿Nik au? ¿Nik au? Banoa, jauna, alabarengana. Atari-barnean, etšeko atea zabalduz deika. Tšomeka, Tšomeka, Tšomeka.
- Tšomeka, okuñluko atetik irtenik, beatzen gainean, Gainzabal-aldera doa.
- URL. Luzi, Luzi, an doa Tšomeka.
- LUZ. (Larrinean) ¿Nun?
- URL. An.
- LUZ. Aurra, ator. Astiro gerturatzen da gaztea.



URLO, TŠOMEKA Y LUZI

- URL. Al llegar al patio de Untzaga, bajo el nogal, mira al balcón y grita) ¡Eh! ¡Eh! Gente de Untzaga: un cazador acorre a vuestro hogar.
- TŠ. (Por dentro del piso, mirando al patio.) ¡Oh, madre! el viejo gordinflón de siempre viene a importunar.
- URL. ¿Qué dices, prenda bella y gentil? tu voz resuena en mis oídos dulce cual canto de abubilla.
- LUZ. (En la plazoleta) ¿Por qué, Señor, lanza gritos Eh y Eh? No estamos sordas.
- URL. ¿Era usted, Luzi? ¿Tšomeka arriba está?
- LUZ. Quizás esté.
- URL. ¡Oh cuán feliz la madre que hija tan gentil y hermosa puede ostentar!
- LUZ. Perdonad, Señor, mi celo a mi inquietud maternal. Con sobrada frecuencia venís a nuestro hogar. ¿No hay en todo Gaínzabal dónde los ocios emplear?
- URL. Qué ¡Esto a mí! Mire usted, máteme si gusta; mas no me impida no, por el cielo, la entrada a su hogar.
- LUZ. Tengo una hijita angelical, Señor, a quien estimo por cima de todo bien terrenal. La blanca nieve de Aizkorri no es tan pura como Tšomeka ¿cual barro vil quereis manosearla?
- URL. ¡Oh! ignora usted quién soy yo Luzi.
- LUZ. Un gran señor sois de ciudad, que, en queriendo desposarse, debe cuerdo preferir a joven tímida y sencilla aldeana una dama de porte y aspecto señoril.
- URL. ¿En Untzaga no se da precio al caudal?
- LUZ. (Con energía) Urlo, fuera! vaya lejos de aquí. No somos carne vil.
- URL. Yerra, Luzi. Busco yo una esposa aquí. La prueba puede ver. Urlo dará a Luzi en dos cajitas una sortija y un reloj de bolsillo. La sortija para Tšomeka es y este pequeño horario es para usted.
- LUZ. (Recibiéndolos con gran regocijo.) ¡Oh qué felicidad! ¿Para mi? ¿Para mi? Voyme ya, Señor, en pos de la hija. Llamando dentro del portal, abriendo la puerta de la casa. Tšomeka, Tšomeka, Tšomeka.
- Tšomeka, saliendo de la parte de la cuadra, se encamina a Gaínzabal.
- URL. Luzi, Luzi, Tšomeka allá se va.
- LUZ. (En la plazoleta.) ¿Dónde?
- URL. Allá.
- LUZ. Hija mía, ven. La joven se acerca pausadamente.

TŠOMEKA, LUZI, URLO TA OKA

TŠ. ¿Zer nai du, ama?

LUZ. Urlo jaun onek iretzat arri ta guztiko erraztun eder au zekarren: begira.

Tšomekak erraztuna azpi ta gain iker beza.

TŠ. Eztet nai.

Erraztuna zorura jaurtikita uri-aldera bizkor doa gaztea; amak zorutik erraztuna jasota gordeko du.

LUZ. Alabari eskuaz zemaika. ¡Ire gaisoa gaur!

URL. Turco, goazen etšera.

LUZ. Ez arren.

URL. Turco, Turco.

LUZ. Zakurrari ugaletik oratuz. Jauna, arren ez. Baserritar neskatša gaiso batentzat erraztun domutsu auek geitšo dira. Gonagai merketšo bat asko du, Tšomekaren biotz tolesgabea, Urlo jauna, berorrenganatzeko.

URL. Ari dagokion eskueratsia ezta ori; baina nai dezuna izan bedi.

LUZ. Entzun bekit, ama nauen oni; Tšomeka nere alabak aintzat artuz, Gainzabalgo gizonik zoritsuena nai badu izan.

URL. Tšomeka zure alabak, beretuz, Gainzabalgo gizonik zoritsuena egin nazan.

Okak agertu baiño lentšeago bere eizadarrari ots eragingo dio.

LUZ. ¿Oka oteda?

URL. Naski.

LUZ. ¿Zein aizek dakar? Banoa.

Luzi barnera doa ta Turco ugaletik darama.

Oka eizadarra eskuan ta bizkarretik iragartola zinzilika dituela.

OK. Kaisio lagun zarra ¿bakarrik onen berandu?

URL. Turco emen zegok.

OK. Nere Pinto zakarra lo geratu zaidak.

Luzi ta neskato bat agertokian, au besapean saski bat duela.

LUZ. (Neskatoari) Onena emateko esayon. ¡Ots!

OK. Luzi beti gazte. ¿Nun da Tšomeka ederra? (Neskatoa urira doa.

URL. Etzekiat.

LUZ. (Okari) Onuntzaldi, Oka? ¿zer dezu ori?

OK. Ekusan.



TŠOMEKA, LUZI, URLO Y OKA

- TŠ. ¿Qué deseas, madre?
- LUZ. Mira qué sortija trae Urlo para tí, provista de una piedra: hela aquí, tómala.  
Tšomeka examina la sortija dándole vueltas.
- TŠ. ¿Y esto qué?
- Después de arrojar á tierra la sortija, la joven va de prisa hacia la villa. La madre levantará del suelo y guardará la sortija.
- LUZ. (Amenazando con la mano a su hija) Hoy pobre de tí.
- URL. Turco, vamos a casa.
- LUZ. No por Dios.
- URL. Turco, Turco.
- LUZ. Deteniendo de la correa al perro. Señor, por Dios no. Para una pobre joven aldeana estas preciosas alhajas de sobra están. Sencilla tela bastará, Señor, para hacer palpitar su tierno corazón y responder fiel a vuestro cariño.
- URL. No corresponde tan pobre obsequio a tan rica belleza, mas declino yo al suyo mi pensar.
- LUZ. { Oidme, Señor, a mí que la engendré, siendo de ella leal y firmemente amado, si quereis entre esposos de Gainzabal ser el más feliz.
- URL. { Pues, de joven tan bella siendo amado, quiero yo entre esposos de Gainzabal ser el más feliz.
- Oka toca fuera de escena su cuerno de caza.
- LUZ. ¿Oka será?
- URL. Tal vez.
- LUZ. ¿Qué fin persigue? Yo me voy.  
Luzi va dentro y lleva a Turco de la trailla.  
Oka, teniendo en la mano cuerno de caza y colgada del hombro la tabla del rótulo.
- OK. Veterano ¿cómo estás tan tarde en tal soledad?
- URL. Tengo a mi Turco.
- OK. Mi sabueso Pinto se empeñó hoy en dormir.  
Luzi y una muchachita, esta con una cesta bajo el brazo.
- LUZ. (A la muchachita) Di que te den el más fino percal. ¡Sus!
- OK. Luzi siempre joven. ¿Y la bella Tšomeka? (La muchachita va a la villa.)
- URL. Yo no lo sé.
- LUZ. (A Oka) ¡Cómo! ¿por aquí vos, Oka? ¿Qué es esa tabla?
- OK. Mirala.

LUZI, OKA TA URLO

Okak bizkarretik eretsi ta zorrotik atera beza iragartola. Ol onetan itz auek daude eza-  
rriak: GAINZABALKO EIZTARIAK.

LUZ. Zertarako dezu?

OK. Jakingo den. ¿Báldakin, Luzi, zer dan Eizabaltzua?

LUZ. Bat ere.

OK. Mingor aragi-beltzak, erbi zanko-arinak, erruki zaituztet  
biotzez. Beraz arretaz adi neri.

URL. (Parrez Luziri) ¿Ezaldakizu, Luzi, nor dan irrizale andi au?

OK. Gainzabalko eiztariak Untzagan jayero ta aldiz astegunetan  
orobat bilduko gera, Urlo bizartsuaren asmoz. (Urlo parrez itotzen)

LUZ. Egunero nai bada ere, gerturik gaude Untzagan.

OK. (Mendi-aldera begira) Basa-egaztiak: ez, arren, negar-malkotan urtu;  
gu eiztariok biotz-samur berak gera. Gere eskuz beintso ere  
eztegu pistirik mindu. Kurruka egin zak, eper begi-eder orrek;  
baraztu zak urratsa, oyanera igesi oan basauntz izuti orrek.  
Gure bunp ots andikoen aldean Marteren eztula gogorra zan.  
(Urlo beiriz algaraka)

LUZ. ¿Nor da Marte ori?

OK. Urloren asaba zar zar bat, au bezela aura ere bizartsua.

URL. Ez, Luzi, oni sinetsi.

Luzik iragartolaz Oka jotzeko keinua egingo du.

OK. ¡Ai, ai, ai!

URL. Luzi: dei egin Antoni.

OK. ¿Antoni deitu? Aseriri obe.

URL. Ez.

Okak bere iskiloa, garbitzeko, aska beza. Urlo ta Luzi sagasti-aldera bijoaz. Urruti nes-  
katoa ageri da, buruan saski miesaz zamatua dakarrela. Okak, bere eizatresna garbitzen  
ari danartean, batean tšiztuka, bestean lalaraka, bestean oyuka, betà emango du  
Luzi Antonen etsealdera danartean, Urlok, saskia burutik erešten aurrari lagunduta  
miesak iker bitza.

OK. Lalaralalala lalaralala. Tšakolin, tšakolin, tšakolinak on egin.



Luzi, Oka y Urlo

Oka depone del hombro y desenvuelve la tabla del rótulo. En ella se leen estas palabras:  
GAINZABALKO EIZTARIAK (quiere decir: cazadores de Gainzabal.)

Luz. ¿Para qué la quiere?

Ok. Te has de enterar. ¿Sabes tú qué viene a ser cinegética sociedad?

Luz. Ni pizca.

Ok. Oye pues con benévola atención. Carninegras becadadas, liebres de ágiles plantas, yo os compadezco de corazón.

URL. (Riendo dice á Luzi.) ¿Ignora usted, Luzi, quién es el guasón de Oka?

Ok. Los cazadores de Gainzabal de fiesta en fiesta en Untzaga nos hemos de reunir con gentil denuedo, según proyecto de Urlo el barbon (Urlo desternillándose de risa.)

Luz. Aun si vinieran cada día aquí, les acogería con placer.

Ok. (Mirando hacia la montaña) Aves de las selvas: no os derritais en gruesas lágrimas, los cazadores somos tiernos de condición. Por nuestra mano nunca herimos alimañas. Canta gentil perdiz de hermosos ojos, canta; retarda ya tu paso, oh tú, cervato tímido, que a la selva veloz huyendo vas. Cabe nuestros ruidosos disparos la tos de Marte mortífera fué.

(Urlo de nuevo rie á carcajadas)

Luz. ¿Ese Marte quién es?

Ok. Fué un viejo abuelo de Urlo el genial, corpulento y barbudo también aquel.

URL. No creas, Luzi, a este cascabel.

Luzi hará como que golpea a Oka con la tabla.

Ok. ¡Ay, Ay, Ay!

URL. Luzi: llámele ya a Antón.

Ok. ¿Llamarle a Antón? será mejor a Ašeri.

URL. No.

Oka desarme su escopeta con objeto de limpiarla. Urlo y Luzi se van hacia el manzanal. A lo lejos aparece la muchachita, trayendo en la cabeza cesta cargada de telas. Oka, mientras limpia su instrumento de caza, empleará el tiempo ya silbando, ya tarareando o bien cantando. Mientras Luzi va hacia la casa de Antón, Urlo ayuda a la niña a deponer la cesta y examina las telas.

Ok. Lalaralala lalaralala. Tsakolin, tsakolin, tsakolinak on egin.

OKA, URLO, LUZI TA ANTON

Lalaralala, lalaralala. Lalarala, lala, lalaralala.

Okak, iskilo garbitua antolatu duenean, sapailora begira ots egingo du. Urlo, oles au en zueran, miesak alde bat utziz, Okarengana betor.

OK. Tšomeka, eder ori ¿nun aiz?

URL. Aup!

OK. Aup! ¿zer nai dek?

URL. Itšonzak.

OK. Esaik ¿ezertšo galdu alde etše onetan? Oka atari-barnera, Urlo ere ba aren ondorik. Luzi ta Anton sagastiko arresian inkilan bëra ietsi bitez.

URL. Agurea eri zegok.

OK. ¿Ala i biotzetik?

LUZ. ¿Nun da, Urlo? Ona emen, eiza-zaina.

Anton inkilan bëra datorren artean, Orkestak «andante mosso» au joko du. Luzik eta neskatoak, berriz saskian miesa tolestuak ezarrita, Okak ikusi eztiztan, okoiluko atetik sar bitez etšean barna.

Urlo ta Oka sapailoan daude iragartola nun esegiko duten autatzen. Oka larrinera t bite, Urlo sapailoan utzita.

ANT. Egun on, jauna.

OK. Kaisio, or zinaten?

Oka atarian agertuaz batera, Antonek, tšapela erdizka goraturik, agur egin bezayo.

ANT. Eiztari jauna, eiztari jauna: Anton naiz.

OK. ¿Zortzigarren agindua ezaldakik zein dan? Ni enauk ez jauna ez eiztaria.

ANT. Ta au? (Okaren iskiloa beatez erakutsiz)

OK. Ori? Jostailutšo bat. ¿Ezagutzen aldek Ašeri?

ANT. Nerau bezelaše.

OK. ¿Eiztari ona al da?

ANT. Ašeri ta Anton biak dira bat.

OK. ¿Aura ez alde i baino geyago?

ANT. Ez, Jauna.

OK. Zarpa-zikin orrek, eztakik eizakia zer dan ere.

ANT. Ezetz? ezetz? Anton nor dan jakiteko galde oyan auetan bizi diran abereai. Izan ongi, eiztari jauna. Agur.



OKA, URLO, LUZI Y ANTON

Es el principio de un canto popular vasco. Mejor es cantarlo con la letra original, pronunciándola así: chacolin, chacolinac ou eguin.

Lalaralala, lalaralala. Lalaralala, lala, lalaralala.

Oka, después de haber armado su escopeta ya limpia, da voces mirando al balcon. Urlo al oír este llamamiento, deja las telas y viene donde Oka.

OK. Tšomeka, dulce prenda ¿dónde estás?

URL. ¡Aup!

OK. Aup ¿qué quieres tú?

URL. Aguarda.

Oka va dentro del portal y tras él también Urlo. Luzi y Antón en el muro del manzana bajan al sendero por la escalinata de piedra.

OK. ¿Perdiste, dime, algo acaso en esta casa?

URL. El anciano está enfermo.

OK. Mas bien tú lo estás y cardiaco.

LUZ. Señor Urlo: vedle ya aquí, ved aquí al montero.

Mientras Antón baja por la escalinata, tocará la Orquesta este «Andante mosso». Luzi y la muchachita, puestas en la cesta las telas ya plegadas, entrarán en la casa por la puerta de la cuadra, evitando que Oka se entere de lo que se trata.

Urlo y Oka están en el balcón tratando de colgar la tabla del rótulo. Baje Oka al patio, dejando a Urlo en el balcón.

ANT. Yo, señor, saludo.

OK. ¿Cómo aquí, buen hombre, estás?

Al aparecer Oka en el portal, le saluda Antón, levantando algun tanto la boina.

ANT. Señor cazador, salud; señor cazador, salud: soy Antón.

OK. ¿Desconoces tú, perillustre, el precepto octavo de la Ley? No soy yo Señor y ménos señor cazador.

ANT. ¿Y esto? (Mostrando con el dedo el arma de Oka)

OK. Eso? Es un juguete no más. ¿Tú, Antón, conoces a Ašeri?

ANT. Conózcole cual a mí.

OK. ¿Es hábil cazador?

ANT. Ašeri y Antón lo son a la par.

OK. ¿No está aquel en destreza sobre ti?

ANT. No lo está.

OK. Andrajoso, quita, no bulle en ti ni idea de la caza.

ANT. ¿Que nó, que nó? Sabe usted quién es Antón? Pídale su opinión a las fieras de estas selvas. Páselo bien, señor cazador. Salud.

OKA, URLO, ANTON, LUZI TA TŠOMEKA

- OK. (Sapailotik) Oyanetako Errege, agintaulkitzat Aizkorri tontorra  
;ta arrano ta sayak ingurukotzat iduki dauzkana. Agur.
- URL. ;Zertan ari zerate? ;Zertan ari zerate, gizonak?  
Oka burutsik eta belauniko Antoni gur bezayo. Anton gogaldi tšarreko ta astiro bijoa.
- OK. Asarrez zijoak astaki ori. (Oka sukaldera bijoa.)
- URL. Anton, Anton. (Anton, Urlok dei egieran, bertiz urbildu bite.)
- ANT. ;Zer da?
- URL. Ator gurekin gero bazkaltzera ta igandero alaber. Gure bal-  
tzuan sari ona irabazi al izango dek.
- ANT. ;Ni Gainzabalgo eiztarien eiza-zain? Galde orri. Zarpazikin eta  
astaki bat omennaiz, eizakia zer dan eztakiana. Ikusiko de-  
zute. Anton bijoa
- URL. Anton, ez oni jaramon: buruarin bat dek au.  
Urlok sapailoan eseki beza iragartola eta sapailotik gorputza zimailduz, atarira begira,
- URL. Oka (esango dio.) Oka sukaldetik betor, agoa betea duela.
- OK. (Galdetzen) ;Hm?
- URL. Begira zein ederki dagoen.
- OK. (Ukatuz) Hm.
- URL. Eiztarien duin aiz. Tšomeka urruti, sagasti-oudoan, ager bite, Antonekia luzaro  
mintzatzen dala.
- OK. Gorago bikainago emango dik.
- URL. Ongi zegok ori, dagoen tokian.  
Urlok, gazteak mintzatzen ikusiz, epegabe, eztul egin beza ta larrineratu bite. Urlok, su-  
kaldeko leyroa urbilduz, Luziri, gazteak parrez ari dirala, zerbait esan nai dio. Okak sa-  
pailoan iragartola gorašengo ezarri beza.
- OK. Begira zak orain.
- URL. Luzi, Luzi: Tšomeka ta Anton izketan, an. Antšintšinka ager bite  
gazteai begira Luzi.
- LUZ. Tšomeka, Tšomeka.
- TŠ. Ator arratsaldean.
- ANT. Bai pozik. Agureari parra egin.
- TŠ. ;Ta amak?  
Tšomeka, amaren bigarren deya entzueran, Anton utzi ta Amarengana betor.
- LUZ. Tšomeka.
- TŠ. ;Zer atsegin, ama?  
Agertokian Luzi, Tšomeka ta Urlo. Sapailoan Oka. Anton sagastian barna bere etša-  
dera joan da.



OKA, URLO, ANTÓN, LUZI Y TŠOMEKA

- OK. (Desde el balcón) Sí, de las selvas es rey, cuyo trono es de Aizkorri la cima y tiene por cortesanos fieros buitres y el águila real. Salud.
- URL. ¿Qué discordia advierto? ¿Tan duro altercado cómo fué?
- Oka saluda a Antón descubierto y de hinojos. Antón mal humorado se va poco a poco.
- OK. Mal humorado se va ese mastuerzo. (Oka se va a la cocina.)
- URL. Antón, Antón. (Antón vuelve a acercarse al ser llamado por Urlo.)
- ANT. ¿Qué hay?
- URL. Ven luego a comer en nuestra compañía, toda fiesta sea igual. Por tus desvelos bien pagado serás en esta sociedad.
- ANT. De cazadores de Gainzabal ¿yo ojeador? Hable el gandul. Andrajoso y mastuerzo hoy me aclamó, que ignora cómo es el arte de cazar. Presto lo veréis, Señor. (Antón se va.)
- URL. Antón: no prestes atención a este, que es un cascabel.
- Urlo se va al balcón. Allí colgará la tabla del rótulo. Urlo desde el balcón mirando hacia el portal, arqueado el cuerpo, dirá:
- URL. Oka. Oka viene de la cocina con la boca llena.
- OK. (Preguntando) ¿Hm?
- URL. Mira cuán bien colocado está ahí.
- OK. (Negando) Hm.
- URL. Eres digno de Nemrod. Tšomeka aparece a lo lejos cerca del manzanal y se detiene a hablar con Antón.
- OK. Arriba más esbelta parecerá.
- URL. Bien está esa tabla cual la coloqué.
- Urlo ve a los jóvenes hablando e impaciente comienza a toser, luego se acerca a la ventana de la cocina y, mientras los jóvenes ríen a lo lejos, quiere decir algo a Luzi. Oka sube al balcón y eleva algún tanto la tabla del rótulo.
- OK. Tiende tu mirada.
- URL. Luzi, Luzi: Tšomeka y Antón hablando allí. Sale Luzi corriendo y mirando a los jóvenes dice:
- LUZ. Tšomeka, Tšomeka.
- TS. No dejes hoy de venir.
- ANT. Contento. Ríete de ese buen viejo.
- TS. ¿Y la madre?
- Tšomeka, al oír la segunda llamada de su madre, deja a Antón y viene donde ella.
- LUZ. Tšomeka.
- TS. ¿Qué deseas, madre?
- En escena Luzi, Tšomeka y Urlo. En el balcón Oka. Antón se ha ido hacia su casa atravesando el manzanal.

Luzi, Tšomeka Urlo ta Oka

Luz. Tšomeka, alaba maitea ¿ezalden ezagutzen gizon biotzandi-  
au?

Tš. Bai, ama; Gainzabalko Urlo jauna.

Luz. ¿Zein euskaldunek eztazau? Izen onek nun eztu ots? Sagastian  
trikurik aina emaztenayak baditu; i soilik aintzat artu, nere  
alaba, izan au; ta berau gizon gordin ederra! Ona Urlo jaunak  
nola darakuskun dinan maitetasuna.

Ataritik bekar Luzik miesadun saskia, eta Tšomekaren aureau ipinita, miesak banan  
banan ateratuz, orratzez alabaren soinean ezarri bitza.

URL. Izen gošoa den Tšomeka. Ipuinetako erreginen urresoinekoen  
duin aizen Tšomeka, nere ostargi ederra, eguzkiarenak bezela  
itsutzen eztuena, biotz onentzat su bakarra.

Luz. Elizmayetan ezta irudi onen ederrik. Tšomeka artetsu dago, zirkingabe.

URL. Elizkoi-artean ezta ni baino eraspentsuagorik.

Luzik, Tšomekari urrutitik arroarren begira dagoen artean, dio:

Luz. Iztšo bat ezten esango, alaba laztantšo? Ezkerrik eztarakusna?

Tš. ¿Auek neretzat?

URL. Bai, gutsi dala.

Tš. Eztitut bear. (Zartada baten erantzi bitza soinetik Tšomekak miesa guztiak eta ata  
rira bijoa).

Luz. (Alabari sarbidea galaraziz). ¡Utikan, utikan! ken.

Oka, sorailutik jetsita, ze berri dan jakin nairik, atarian ageri da. Beste irurak  
ba- batera ayenatu bitez, okoilu aldetik etsean sartzen dirala.

OK. Ametsetan otenaiz? Begiak igurtzi bitza Okak bein ta berriz. ¿Zomorroak  
alzinaten: Urlo, Luzi ta Tšomeka ederra? Ormai ikutu bizaiote. Or-  
mak ¿arri ala aizezkoak zerate? Oka lo ala esnai ago? Berriz  
begiak igurtzita soinekoak astinduz. ¿Anton aiza? Oka aiza? ¿Inor aiz, ala  
ezaiz inor? Gero, eskuak bekokian edatuz, eguzkiari begira. Ostargi eder ori  
¿eguzkia oteda? Urlo, atzeko aldetik, zakur ta guzti, Gainzabal-aldera doa.

Urlo, ¿erroren irudia ¿ala eurori aiz? (Gainzabal-aldetik eiztari batzuek  
ageri dira. Urlo, beren oyuak entzueran, burua jasota berriz ezkutatzera bijoa. Urlo.  
(Isiltaldía) ¡Ta isilik berau!



LUZI, TŠOMEKA, URLO Y OKA

LUZ. Tšomeka: ven, hija mía, y di ¿conoces a este hombre de tan noble corazón?

Tš. Madre, sí: el Señor Urlo de Gainzabal.

LUZ. Vasco no es quien no le conoce. ¿Dó su nombre no resonó? Cual erizos a manzanales, corazones vanse a él. Sólo en tí, hija mía, fijase Urlo, sólo en tí; y mira cuán hermoso y joven es. Con noble espléndidez muestra el Señor Urlo, hija, su ardiente amor. Luzi trae del portal el cesto con las telas, las saca una por una y las va prendiendo con alfileres en el cuerpo de su hija.

URL. ¡Cuán dulce nombre tienes, Tšomeka! cuán digna eres de áureos mantos, de reinas de orientales cuentos! pareces a mis ojos, Tšomeka hermosa, fulgente luz cerulea, cuyos rayos jamás me ciegan, oh vida de este mi corazón!

LUZ. En los altares no hay una imagen tan hermosa. Tšomeka está tranquila, inmovil.

URL. Entre los fieles no hay uno más devoto que este adorador.

Luzi, mientras, orgullosa mira de lejos a Tšomeka.

LUZ. ¿Nada tienes, hija amada, por hacernos oír? ¿Cómo no has dado gracias? di.

Tš. ¿Esto es para mí?

URL. Sí y es bien poco.

Tš. No lo necesito. (Tšomeka arranca de un tirón las telas que han prendido en su cuerpo y se va al portal.)

LUZ. (Impidiendo a la hija la entrada.) ¡Fuera, fuera! Sal.

Oka, queriendo saber lo que ocurre, baja del piso y aparece en el portal. Los otros tres desaparecen al punto, entrando en casa por la parte de la cuadra.)

OK. ¿Por ventura sueño yo? Oka frota los ojos con las manos repetidas veces. Eras tal vez fantasmas ¿Urlo, Luzi y tú hermosa Tšomeka?

Paipa las paredes con las manos. Muros ¿sois de piedra o de leve aire?

Oka, dime si velas o duermes. Se frota de nuevo los ojos y tienta la ropa.

¿Antón eres? ¿Eres Oka? ¿Eres alguien o no existes ya? Mirando al Sol, teniendo las manos extendidas en la frente. La hermosa luz del cielo, que veo allí ¿es el Sol? Urlo va hacia Gainzabal por la parte zaguera con su perro. Urlo ¿imagen eres de tí o eres tu ser personal? (Por el lado de Gainzabal aparecen unos cazadores. Urlo al oír sus cantos, levanta la cabeza y se va de nuevo a esconderse.) Urlo. (Rato de silencio.) ¡Y calla cual mudo!

TALDEA, OKA, ARIZTI, LUZI TA URLO.

- Eiztari  
taldeak
- 1.<sup>ak</sup> Batzokia ageri da, an dek egatz gailduurraren ertzean oilar isilkorra.
- 2.<sup>ak</sup> Oka tšoriburu ta Urlo or zebiltzek larrinean.
- OK. Oraintše dakit zomorroa enaizena ta esnaturik nagoela.
- TALD.
- 1.<sup>ak</sup> ¿Nora oa, Baltzuaeren sortzaile ta eiztari guztien aitalena?
- 2.<sup>ak</sup> ¿Turcoren nagusi potzolo ori, igesi aloa?
- ARIZT.
- ¿Zer berri degu gaur emen, Oka?
- OK.
- ¿Zer berri! berri oso izugarriak. Entzun. Or gogoketan nintzala, iru zomorro nekuskian nik: (Eiztariak algaraka parre) Urlo, Luzi ta Tšomeka onesgarria; gazteak soinean ebakin auše zedukan. Gonagai bat bizkarreratu beza.
- ARIZT.
- Tšurrut egin dik onek.
- OK.
- Urlok biotza ikol-ikol zeukan; garraisika atsoa ari zan. Ni agertuaz irurak ¡Brast! suntsitu zizkidan.
- TALD.
- 1.<sup>ak</sup> ¡Begitasuna, tšorakeria!
- 2.<sup>ak</sup> ¡Tšorakeria, begitasuna!
- 3.<sup>ak</sup> ¡Gezurra, gezurra! (Bi bunpada dantzukite.)
- OK.
- ¿Nun dira bunpadok?
- TALD.
- Sagasti ortan, an goyan.
- Sagastira doaz gizon guztiak. Luzi ta Tšomeka atarian ager bitez. Tšomeka negarrez, mantala begietan duela; bere ama estu ta larri.
- LUZ.
- Urlo, Urlo ¿nun da, jauna? ¡Urlo! ¡Bere burua il otedu, gaisoak! Bere burua il du. Luzik ere mantala begietara darama. Urlo, nere suingai eder ori ¡ionen gazterik ill! (Antziká Luzi) Urlo, Urlo.
- URL.
- Etše-atzetik agertokiratuz. ¿Zer?
- LUZ.
- Ah! (poz-pozik) ¡Bizirik! ¿Nun izan da, Urlo jauna?
- URL.
- ¿Zer ba?
- LUZ.
- ¡Ah! il zala uste genduen ta ama ta alaba negarrez geunden, batez ere Tšomeka. (Tšomekari aurpegia agertaraziz) Begira.
- URL.
- ¡Ah! ¡ah! Zabala akit, nere biotz atsakabetu ori.
- LUZ.
- Gazteak, uzten zaituztet; barne artan zeregina det. (Tšomekari bellarrira) Esanak esan, Tšomeka: eskerrak ta parrirri. (Ulori bakarrean) Urlo jauna, bizarrak izutu dute. Oyu ta triska beza. Gazte ager bekigu. Barnera doa Luzi.



EL CORO, OKA, ARIZTI, LUZI Y URLO,

Coro 1.º de  
cazadores

Se ve ya la sociedad. En el extremo del tejado el gallo silencioso está.

2.º El gran Urlo y Oka el cascabel en el patio vense mover.

OK. Ahora sé que no soy vano fantasma yo y despierto me agito aquí.

Coro 1.º ¿A dónde vas tú, fundador de ilustre sociedad, de cazadores

2.º numen genial?

3.º ¿Cómo pretendes día tal tus consocios abandonar?

ARI. ¿Qué nuevas pasan hoy aquí, Oka?

OK. ¡Qué nuevas! nuevas espantosas presencié. Oid. Cavilando absorto ahí, tres fantasmas viendo estaba yo: (los cazadores se ríen estrepitosamente) Urlo, Luzi y la amable Tšomeka; la joven se cubría de lindo percal. Póngase en la espalda una de las telas.

ARI. Este no vino ayuno.

OK. Cual avellana tenía Urlo el corazón, ronca la vieja gritaba como yo aparecí, los tres se disiparon.

Coro 1.º ¡Vana ilusión, desvarío!

2.º ¡Desvario, vana ilusión.!

3.º ¡Falsedad, falsedad! (Oyen dos tiros.)

OK. ¿Quién esos tiros disparó?

CORO Sonaron allí, arriba.

Van todos los hombres al manzanal. Luzi y Tšomeka aparecen en el portal. Tšomeka llora, enjugando los ojos con el delantal; su madre muy apurada.

LUZ. Urlo, Urlo ¿dónde está, Señor? Urlo ¡pobrecito! tal vez contra sí atentó. Por pundonor se mató. También Luzi se enjuga los ojos con el delantal. Urlo, hermoso yerno mío ¡¡siendo tan joven morir!! (Solloza Luzi.) Urlo, Urlo.

URL. Presentándose en escena por la parte zaguera ¿Qué?

LUZ. ¡Ah! (Muy regocijada) ¡Vivo está; ¿dónde se fue, señor?

URL. ¿Pues qué?

LUZ. ¡Ah! madre e hija, convencidas de su muerte, llorábamos tristes, sollozaba Tšomeka. Haciendo a Tšomeka mostrar su semblante. Mirela.

URL. ¡Ah! ¡ah! ábrete feliz y goza, mi afligido corazón.

LUZ. Jóvenes, debo dejaros, atrasada tengo mi labor. (A Tšomeka a la oreja) Haz lo dicho tú, Tšomeka; sonriete, gracias dá. (A Urlo aparte) Señor Urlo, las barbas la han espantado; cantad y alegre bailad. Debeis joven parecer. Luzi se va dentro.

URLO, TŠOMEKA, OKA TA TALDEA

Urlo, itz egin nairik eztulka ari da.

URL. Goizgiro ederra gaur.

TŠ. Baiki, jauna.

URL. ¡Ni ire jauna! Beste zerbait izan nai niken, Tšomeka: nere bi-  
zitze gozoa.

TŠ. Gaztêgi naizelako...

URL. Ta ni ¿ni zarra naizela uste alden? Bizarrak bai, ni baino asko  
zarrago ditun.

TŠ. ...Eztiot len eskerrik erakutsi emayen alderako, berorri. Sona ta  
tolesgabe. Bein ere nik eztet izan, jauna, bezuza aipagarririk, ta  
eztakit nola erantzun emaleari. Ar bitza beraz eskerrak, eiz-  
tari jauna, ta ¡otoi! azkets.

URL. Lipar zoritsu ori, ez jarrai egunari, gel beti nerekin. Barnean  
Okaren eizadar-otsak.

TŠ. Oka dator. Tšomeka etše-barnera doa; Urlo ere bai bere atzetik, eiztari ageri ezti-  
nak keinatuz. Anton bizkar-gainean dutela, ageri dira eiztariak, ogei bat. Oka aurretik  
eizadarra jotzen. Antonek bi eper dakazki esku batean, sorbalдан sutiskiloa.

OK. Eiztari bikainago bat, inun bada, ager bekigu Untzagara.

TALD. Batzokira eldu gera, Anton eiztari bikaina gure bizkarrean  
degula. Anton eretši bezate 1.<sup>ak</sup> ¡Gora Anton! Eiztari bikainago bat,  
inun bada, etor bekigu Untzagara. 2.<sup>ak</sup> ¡Gora! Untzagako la-  
rrin zabala emen diagu lagunak. Eiztari bikainago bat ezta  
mundu zabalean.

Geyenak zurrumurru izketan ari dirala, Oka, itz egin nairik, maigaiñeratu bite. Ba-  
tzuek š š š isilarazi nai dute.

OK. Iztšo bat esan nai nuke. š š š berriz ere zenbaitak. ¡O Gainzabalko eiz-  
tariak! ¿Nortsu zerate? Urlo bizartsuaren gogamen gizen bat.  
¿Nai aldeute bera Baltzuko Buruzagi izatea?

TALD. Bai.

OK. ¿Ta Anton eizazain?

TALD. Guztiak ari dira tšaloka. Anton paririz buruari azka. Urlo agertueran tšalo egiten diote  
besteak «gora» deadarrez. 1.<sup>ak</sup> Gora, Urlo. 2.<sup>ak</sup> Gora.

URL. ¿Zer gertatzen zaitzute, lagun zarrak?

OK. Ongi etorria biz buruzagia.



URLO, TŠOMEKA, OKA Y EL CORO

Urlo, queriendo hablar, se pone á toser.

URL. Hace buen tiempo hoy.

TŠ. Cierto, Señor.

URL. ¡Yo señor tuyo! Quisiera ser, dulce bien mio, Tšomeka, más íntimo que señor.

TŠ. Porque aun soy joven yo...

URL. ¿De mí crees tú que soy viejo carcamal? Mis barbas sí, más viejas que yo, Tšomeka, son.

TŠ. ... Antes no dí gracias a mi bienhechor por tantas dádivas que recibí. Con gracia y sencillez. Nunca cual hoy me han regalado, con tal esplendidez y no sé corresponder a un fino agasajador. Aceptad mi pobre gratitud y disculpadme, señor cazador.

URL. Feliz momento: no sigas al día fugaz, detente hoy en mí. Dentro suena el cuerno de caza de Oka.

TŠ. Viene Oka. Tšomeka entra en casa; también Urlo tras ella, dirigiendo un gesto de amenaza á los cazadores que aun no aparecen. Se presentan estos, unos veinte, trayendo a hombros a Antón. Oka viene por delante tocando su cuerno de caza. Antón trae en las manos dos perdices muertas, al hombro la escopeta.

OK. Otro mas habil cazador, si alguno hay, puede aqui compacer.

CORO Al centro llegamos ya, trayendo al magno cazador Antón con entusiasmo juvenil. Baján á Antón 1.º ¡Viva Antón! otro más hábil tirador, si alguno hay, debe el reto noble aceptar. De Untzaga el amplio patio divisan los ojos ya. 2.º ¡Viva! otro más hábil cazador debe el reto noble aceptar.

Estando todos rumoreando conversación, Oka deseoso de hablar sube á una mesa; uno quieren hacerle callar siseando: ssssss

OK. Quisiera yo algo exponer. sssss de nuevo sisean algunos. Salud, inmortales héroes de nuestra Patria. ¿Quién os creéis ser? Un grueso pensamiento de Urlo el fundador. ¿Os gustará aceptar a Urlo cual Presidente de esta sociedad?

CORO Sí.

OK. ¿Por montero a Antón?

CORO Todos aplauden. Antón ríe y se rasca la cabeza. Al aparecer Urlo, le reciben los otros con grandes aplausos y vivas. 1.º Viva, Urlo. 2.º Viva.

URL. ¿Qué ocurre aquí, mis veteranos?

OK. Bien venido seas a presidir.

URLO, OKA, TALDEA, ARIZTI TA AZKAIN

URL. ¿Zer diok Oka, zer?

OK. Gainzabalko eiztariak Buruzagitzat artu autela, Urlo.

URL. Eskerrak dizkizutet, lagun zarrak. ¿Zilegi otezait asmotšo bat erakustea?

OK. Mintza, Urlo, mintza.

URL. Gainzabalko eiztariak: soinantz egoki bat bear degu. Urlok bizkarretik bérako sakel andi batetik atera ta soinantza berakus: lumadun kapela, galtza laburrak, amila motša ta zankazorroak. Lagunak gogo beroz tšaloka ari dira.

Ementše det eredua.

Urlok kapela lumaduna bururatuz batera, besteak oyuka asi bítez.

TALD. Gainzabal, Urlo aundiaren sorturi ederra: onetsi gozatsu eiztari-baltzu onen sorrera. Zure seme andi onen asmo au legorrez ta itsasoz eldu ditela ezpainez ezpain. (Oka maiganean.)

OK. Neronek ere badet asmo eder bat, emen. (Beatza kopetan duela.) Aştean bi aldiz bunp ta bunp ituketan gakiozan.

TALD. ¡Ori! Oka, ori ez.

OK. ¿Zergatik ori nai ez? Ager bite bat izka nere aitzi. Gure arteko trébén trébéna Urlo da.

ARI. Ala dek.

OK. Beronek beti, nere aurrean beintzat, bunp eta ¡uts egiten du! ¡¡ta iru asmo ditu emen!! Eiztari-baltzua.

AZK. Bat eman.

OK. Ta soinantza.

AZK. Bi eman.

OK. Ta eizazaina ere berorrena du.

URL. ¿Nor da eizazain ori?

OK. Orrako Anton, eiztari bikaina.

URL. ¡Bikaina! Au eztek eiztari trebea.

OK. Anton, ekartzak oyek. (Urfori) ¡Au dek au!

URL. Ašeri nai badek, bai. (Okak parre, beste batzu ek ere bai. Okak Urfori Antonek ¡ldako bi eperrak erakuts bezaizkio. Jajajajajajajajajajajaj.)

OK. Begira: Antonek eizorik gabe...

URL. Baote!



URLO, OKA, EL CORO, ARIZTI Y AZKAIN

- URL. ¿Qué dices, Oka, qué?
- OK. Los cazadores de Gainzabal por Presidente te aclamaron ya, Urlo.
- URL. Mil gracias, compañeros, aceptado. Séame permitido proponer una idea.
- OK. Habla, Urlo, habla.
- URL. Cazadores de Gainzabal: cuerpo uniforme debe el nuestro ser.
- Muestra Urlo el uniforme extrayéndolo de una gran bolsa que le cuelga al hombro: sombrero con plumas, calzón, chaqueta corta y polaina. Los socios aplauden con entusiasmo.
- Señores, ved el modelo aquí.
- En cuanto Urlo se encasqueta el sombrero de plumas, los otros rompen á cantar.
- CORO Gainzabal, hermosa patria de Urlo el fundador: gozoso acepta fiel oblación de la sociedad. La magna idea de tu hijo inmortal por mares y tierras llegue del Universo al confín. (Oka sobre una mesa.)
- OK. También germina en mí una hermosa concepción, aquí. (Llevándose un dedo á la frente.) Dos veces por semana pum y pum debemos al blanco tirar.
- CORO. ¡Eso! Oka, eso no.
- OK. ¿Por qué razón eso no? Que salga uno la mía a replicar. El más hábil de esta patulea Urlo es.
- ARI. Es verdad.
- OK. Modesto él, siendo yo fiel testigo, pum y pum ¡yerra siempre! y tres ideas tuyas hay aquí. Mirad: la sociedad.
- AZK. Una va.
- OK. El uniforme.
- AZK. Otra va.
- OK. La idea del montero es también de él.
- URL. ¿Quién es ese montero?
- OK. Mira ahí Antón, excelente tirador.
- URL. ¡Excelente! No es Antón hábil cazador.
- OK. Antón, muestra tu caza. (A Urlo) ¿Cuerdo estás?
- URL. Añeri podrá bien ser. (Oka ríe y otros con él. Oka pone ante los ojos de Urlo las dos perdices muertas por Antón. Jajajajajajajajajaja.)
- OK. Mira tú cómo Antón sin sabuesos hoy pim pum...
- URL. Mas ¿cómo?

OKA TA TALDEA

OK. Gureak bezela ez titek auek diru-usainik. *Rallentandora* eldueran, Okak Urlo ri sudurretara eperrak daramazkio ta eiztariak itozten parrez ari dira. Urlo ere bai. Antonek TSomeka maite du, Urlok ere alaber. Berriz parre an diagoak. Urlo lotsaz barnera. Ots egin dezala Gainzabalen oyuak berriro.

TALD. Gainzabal, Urlo aundiaren sorturi ederra: onetsi gozatsu eiztari baltzu onen sorrera. Zure seme andi onen asmo au, legorrez ta itsasoz eldu ditela ezpainez ezpain. ¡¡Gainzabal, Gainzabal!!

AGERTOYALA BERA



OKA Y EL CORO

**OK.** No huelen estas piezas como las nuestras a piezas de vellón.

Al llegar al *rallentando* aproxima Oka las perdices a la nariz de Urlo y los cazadores ríen estrepitosamente. Urlo entre ellos. **Tšomeka es amada de Antón, así bien del fundador.** Nuevas y más estrepitosas risas. Urlo avergonzado se vá adentro. **Suene de nuevo el gran himno popular.**

**CORO** Gainzabal, hermosa patria de Urlo el fundador: gozosa acepta fiel oblación de la sociedad. La magna idea de tu hijo inmortal por mares y tierras llegue del universo al confín.  
**¡¡Gainzabal, Gainzabal!!**

ABAJO EL TELÓN

## BIGARREN ATALA

Untzagako etsearen barnea dakus batek atzetik. Etsezola ta lenengo sorailua ageri dira. Zolan, ikuslearen ezkerretara, urrutirengo, sukaldeko atea dago ta alderago okuilurakoa; bi ate onen artean, gorako mailadia. Sorailuan lau ate, beste ainbeste gelatarakoak; bi ezker, bi eskubitik; iru mai andi, gaila (mandaberra)-tajuan; onen aldean esertokiak, ogei ta amar bat. Ormetan isigirik apaingarri zenbait: basurde ta basautz-buruak, eper ta galeper bizi antzekoak, iskiloak antšume, eizadarrak... ta erdi-erdian, maiburuan, Urlo buruzariaren izantz andi bat, bizar ta guztikoa.

Agertoyala jasoteran, Tšomeka iru mayetan, zapi ta zamau, bonbil ta pitšar, tšali ta edontzi, zali, aizto ta lauortz ipintzen ari da; eskuzatar batez betaz ta tajuz garbitzen dituela.

**TšOM.** Gure egalpeko tšoritšo beroak zarakarztenok, jeiki-ordu latzaren iragarle egitiok: zaudete aurten luzaro Untzagaren babesean, zuen tšioketaz minok gozatu ditzadan. Sapailora doa Tšomeka; ta Gainzabal-aldera, ezkerretara, begiraturaz geroz, bere lanari berriz dakio. Etseko andre dirukoyari irakatsi eyozute, bizikide-gaiak diranak alkar maite bear dutela. Erruki det nik Urlo, ez tet nik maite ordea; gaintšo artan bizi da neretzat sortu dana. (Sapailotik berriz begiraturaz) Ezta ageri sortzailea. Enarak enara bezela, baserritar naizen onek laguntzat baserritartšo yayu bat bear det. Antonek, mailadian gora lizkor ta isil-estuka igota, ardura andiz ariko atea zabalduko du. Antonek soinean eizazain-jantzia du: tšapelean zilarrazala, sorbalдан sutiskilo a Urloren biotz zarrak nerea bear balu izoztu, zuen laguntzan nai det uda bila erraldatu (Antonikusita) ¡Ah! ¡au ikara!

**ANT.** ¿Ta ni? Ni gabe joan nai alden, uda orren bila, ik?

**Tš.** Barrandan ¡e! Anton! ¿Nola azartu aiz etsai-zulo ontara etortzen, Anton? (Lera aundiz) Nor dan balekite isil-eiztaria, il noski egingo ukete gaur.

**ANT.** Naiz ta il, ire ondoan egon bear dinat.

**Tš.** Ta nere amaren keinuak?

**ANT.** Enatšin ire amak salatuko.

Tšomekak, mantala begietan duela negarrez, garrasi egiten du ta Antonek poztu nai du



## SEGUNDO ACTO

Ve uno el interior de la casa de Untzaga por detrás: el piso llano y el primer piso. En el piso llano, a la izquierda del espectador, lejos, está la puerta de la cocina y más cerca la de la cuadra; entre estas dos puertas, la escalera para arriba. En la habitación se ven cuatro puertas, de otros tantos aposentos: dos a la izquierda, dos a la derecha; tres grandes mesas dispuestas en forma de herradura; sillas junto a la pared, unas treinta. Cuelgan en las paredes algunos adornos: cabezas de jabalí y venado, perdices y codornices disecadas, panoplias de armas, cuernos de caza..... y en el testero, en la presidencia, un gran retrato de Urlo el presidente, con todas sus barbas.

Al levantar el telón, se ocupa Tšomeka en poner en las tres mesas manteles y servilletas, platos y vasos, botellas y jarras, cucharas, cuchillos y tenedores; limpiándolos pausada y esmeradamente con una rodilla.

**TšOM.** ¡Oh! pajarillos que, atraídos del calor, vivís conmigo y fieles vigias de la Aurora me invitáis a madrugar: sed largo tiempo hogaño de este mi techo al dulce amparo, mis crueles penas vosotros gorgeando endulzad. Va Tšomeka al balcón y después de mirar hacia Gaínzabal, a la izquierda, vuelve a reanudar su tarea. A la mi madre codiciosa enseñad con dulces trinos, dos que el cielo destinó a consortes se deben mutuo amor. De Urlo me compadezco, de este mi amor no es él dueño, no; allí arribita vive el que para mi nació. (Mirando nuevamente del balcón) No parece aun el fundador. Cual golondrinas golondrina, yo que soy campesina por compañero reclamo campesino cual soy yo. Antón, subiendo escalera arriba, ágil y a hurtadillas, abrirá con mucho tiento. Antón aparece vestido de montero: chapa en la boina, en la espalda arma de fuego. Si de Urlo el viejo pecho, tiene que helar mi pobre corazón, quiero yo, amigas, con vosotras buscando estío emigrar. (Viendo á Antón) ¡Ah! qué susto!

**ANT.** ¿Y yo? Sin mí quisieras, ingrata, ese estío perseguir?

**Tš.** ¿Tú en acecho, Antón? di cómo osaste entrar aquí cueva de enemigos tuyos. (Con mucha pasión) Si supieran quién es el furtivo cazador, oh Antón, te matarían tal vez.

**ANT.** Aún así debo yo quedarme, prenda, a tu lado.

**Tš.** ¿No ves que madre te amenazó?

**ANT.** Tu madre nunca me denunciará a mí.

Tšomeka, enjugándose los ojos. Llorando dá un grito, Antón trata de consolarla.

ANTON, TŠOMEKA TA OKA

- ANT. Ez negarrik egin. Enaute ni ilko, galeper bat il ezin dutenok
- TŠ. Igesi doaz galeperrak; i, aldiz, berongana ator. Anton ¡¡nere maitearren!!
- ANT. Tšomeka ¿nola nai den nik i lapur-zulo ontan uztea? (Gogo beroz) Ire biotz eder orrek nere ta eiztari guztien biziak baino domu geyago din.
- TŠ. (Parririz) ¡Au ago-beroa!
- ANT. Nere esana ik egin.
- TŠ. Mintza.
- ANT. Gu baserriko umeok ergeltzat gauzke oyek. ¿Ezalden egia?
- TŠ. Bai, Anton.
- ANT. Egin bâ nere esana. (Isilean bezela itz egiten dio.) Urlori ire amak esan zionez, oyu ta triska eragin, ta bezuza eder domutsu oyek ar itzan.
- TŠ. Eztet nai.
- ANT. Eskerrak eman, biotza ez.
- TŠ. Biotza irea dekala ¿ezaldakik?
- Anton sapailora. Tšomeka bere lanean.
- ANT. ¿Nola, maitetšo, ikusi aut enarakin izketan?
- TŠ. Berak nerekin ari ziran, ni ere bai berakin.
- ANT. ¿Tšoraturik alago, mintzatzen dirala sinesteko?
- TŠ. Irri ere bazekitek Urlori egiten.
- ANT. ¡Goyarin! ¡Irri!
- TŠ. Agureak «aup» egiten duenetan, ji ji ji ji ji ji ji enarak, taldez egin oi dute.
- Oka mailadian gora dator «lala lala lalala» oyu eginez.
- ANT. Tšoroška ¡ori sinetsi!
- OK. Lala larala lalala, lalara lalalala.
- TŠ. (Urduri ta larri) Oka dator. Tšomekak gela batera Antoni bultz egiten dio; Anton, atea ertz-idikirik duela, barnean geldi bedi. Sar ortše. Tšomeka, sapailoar buruz, ikusleari lepoz, bere sail etenari berrayo. Oka beatzen gaínean sar bite. Tšomekarengana eldueran begiak eskuz estaliko diozka. Okak soinean eiztari-jantzia dakar; gal-tza laburrak, zankazorroak, lumadun kapela...
- OK. Ezetz igarri, Tšomeka, ni nor naizen.
- TŠ. Amandre zana. (Aurt eginez) ¡oi! Eztet amandre.



ANTÓN, TŠOMEKA Y OKA

- ANT. No llores, Tšomeka ¿a un hombre matarle los que no pueden una codorniz?
- TS. Huyen de ellos las codornices; mas tú a ellos vienes audaz. Antón ¡¡por este cariño!!
- ANT. Tšomeka ¿cómo quieres que aquí entre bandidos te deje yo? (Con entusiasmo) Tu corazón tierno, hermoso, más valor que mi vida y la de estos zánganos él solo tiene.
- TS. (Sonriendo) ¡Oh, qué exageración!
- ANT. Mi consejo sigue tú.
- TS. Habla.
- ANT. A nosotros, los hijos de aldea, bobos nos juzga la ciudad. ¿No es esta la verdad?
- TS. Sí, Antón.
- ANT. Oye pues mi idea. (Le habla como en secreto.) A Urlo, cual tu madre un día sugirió, hazle cantar y bailar, y al ofrecerte ricas alhajas acepta.
- TS. Tal, jamás.
- ANT. Dale tú gracias, no el corazón.
- TS. Tú sabes bien que mi corazón es tuyo.
- Antón va al balcón, Tšomeka sigue en su trabajo.
- ANT. Dime como te he sorprendido en coloquio con los pájaros.
- TS. Ellos me hablan con sus gorgeos, con los míos hablo yo.
- ANT. ¿Tienes trocado el juicio para decir que pueden dialogar?
- TS. ¡Qué dirías si les oyeras de Urlo sin piedad reír!
- ANT. ¡Cascabel! Lo crees.
- TS. En oyendo «aup», grito habitual del sesentón, ji ji ji ji ji ji ji ríen a coro mis golondrinas.
- Oka viene escalera arriba cantando *lala lala* etc.
- ANT. Loca estás, si lo crees así.
- OK. Lala larala lalala, lalara lalalala.
- TS. (Agitada y apurada) Viene Oka. Tšomeka, empuja a Antón hacia un aposento; Antón queda dentro con la puerta entornada. Entra ahí. Tšomeka, de espaldas a los espectadores, sigue su interrumpida tarea de limpiar la vajilla. Oka entra sobre las puntas de los piés; al llegar a Tšomeka le cubre los ojos con las manos. Oka viene vestido de cazador: pantalón corto, polainas, sombrero con pluma...
- OK. A que no adivinas, Tšomeka, quién soy yo.
- TS. Mi difunta abuela (Volviendo) ¡oy! Mi abuelita no es.

OKA, TŠOMEKA, ANTON, URLO TA LUZI

- OK. ¿Bakarrik nola akust nik?  
TŠ. ¿Ta nik zu lagun gaberik?  
OK. Urlo aundiak begi ona du.  
TŠ. ¡Ja ja ja! ¿Begi zorrotza Urlok!  
OK. Eperretako ez, emaztegaitan orde... Okak Tšomeka palagatzen du ta bereala irtetzen da Anton ezkututik.
- ANT. Nik ere badakit palagatzen.  
OK. ¿Eu ator neregana, zarpazikin? ¿Nolako eizazaina aiz i? Ašeri or zebilek eper iltzen.
- ANT. Gabez, ni lo nagoela.  
OK. ¿Gabez? ¿Eperrak saguzarrak aldituk?  
TŠ. Arren! gizonak, geldi; arren! otoi!
- ANT. Palagatu zak berriz, muturrok autsiko dizkat.  
OK. Ken akit, neskatša, ken; asto kerten au jo dezadan.
- ANT. Jo nazak.  
URL. ¡Aup! ¡aup!
- Alkar jotzera dijoaztela, Urloren mintzura entzun ta baretzen dira. Anton ta Tšomeka sapailora doaz, Urlo ikustera.
- TŠ. Bera da.  
ANT. Bera. Bizar-motzik dator: begira.  
Oka ere sapailora.
- URL. ¡Aup! ¡aup!  
OK. ¡Aup! Eder galanta zegok. Sorots dezagun morroi au.  
ANT. Astoak ere bai mutilduezkero.  
OK. (Urloren izantza eretši ta luzaro begiratuz. Onen antzik ere eztu; «aup» esan ezpalu ¿nork ezagutu al?)  
Urlo betik oyuka.
- URL. ¿Inortšo bizi da emen?  
LUZ. Urlo, ongi etorria Untzagara.  
URL. ¿Nun dezu Tšomeka?  
LUZ. Goyan ¡oy! zein gazte dagoen! Bijoia gora. (Okak Urloren izantza bere tokian jarri beza.)  
Tšomeka larri-larri lenago bezela, Antoni gelarontz bultz egin nai dio.
- TŠ. Bazetorrek. Sar ortše.  
URL. Laster.  
ANT. Betorkit, nai badu. Urlok sakeletik paper bat atera beza.  
LUZ. ¿Zer du or?



Oka, Tšomeka, Anton, Urlo y Luzi

- OK. ¿Cómo estás tan sola?  
Tš. ¿Y usted sin los otros?  
OK. ¡Qué buen ojo tiene Urlo!  
Tš. Jajaja ¡Que Urlo tiene buen ojo!  
OK. Para perdices no cazador es sin par.  
Oka acaricia a Tšomeka y al punto sale de su escondite Antón.  
ANT. Yo soy también ducho en acariciar.  
OK. ¿Tú vienes, gran andrajoso, tú donde mí? El coto dejas a merced de Ašeri, que hace hecatombe de perdices.  
ANT. De noche, mientras yo duermo.  
OK. Bribón, dí ¿las perdices son murciélagos?  
Tš. Haya paz, os lo ruego, haya paz.  
ANT. Acariciala otra vez y te romperé la cara, loco.  
OK. Déjame ya zurrar al bausan.  
ANT. Zúrrame.  
URL. ¡Aup! ¡Aup!  
Al ir a golpear se oyen la voz de Urlo y se calman. Antón y Tšomeka salen al balcón para ver a Urlo.  
Tš. El es, él.  
ANT. Urlo desbarbado viene: mirele.  
También va Oka al balcón.  
URL. ¡Aup! ¡Aup!  
OK. ¡Aup! Ved cuán bello aparece. Mirad atentos al barbián.  
ANT. Como los burros al ser trasquilados.  
OK. (Descuelga y contempla largo rato el retrato de Urlo y dice) Ya no es Urlo el que fué. ¿Quién pudo conocerle, si no grita «aup»?  
Urlo canta desde abajo.  
URL. ¿Vive alguien aquí?  
LUZ. Sea usted bien venido á Untzaga.  
URL. ¿Tšomeka dónde está?  
LUZ. Arriba ¡oh! cuán joven viene usted! Suba usted allá. (Oka coloca en su puesto el retrato de Urlo)  
Tšomeka muy apurada quiere empujar, como anteriormente, a Antón hacia el aposento.  
Tš. Que viene. Entra ahí.  
URL. Ya voy.  
ANT. Véngase el mastuerzo (Urlo saca del bolsillo un papel)  
LUZ. ¿Y eso qué es?

URLO, LUZI, OKA, ANTON TA TSOMEKA

- URL.** Maite-eresitšo bat. (Urlok betaurrekoak atera bitza, papera irakurtzeko.)
- LUZ.** Entzun dezagun. (Tsomeka bere gelan sar bedi.)
